

BEZEROEKIN HARREMANAK

Gure enpresaren produktua hainbat lekuetan saltzen dugunez eta hainbat modelo ezberdin ditugunez web orrialdean, bezeroekin izango dugun harremana salmenta puntuan oinarrituko da.

Kirol denda batean saltzen den produktua modelo sinplea denez bezeroak bertara joango dira, hau erosiko dute eta erabili egingo dute gure enpresarekin harremanetan jarri gabe. Hala ere produktuak arazoren bat badu guri itzultzeko aukera izango du egoera onean dagoen produktu batengatik aldatzeko

Web orrialdeetan saltzen ditugun produktuekin berriz, hainbat modelo saltzen ditugunez (bai basikoa eta pertsonalizatuta dauden batzuk) bezeroek behar dutena jakitea beharrezkoa da. Gure web orrian telefono zenbaki bat eta email bat egongo dira bezeroak dituzten zalantzak eta galderak argitzeko eta behar bereziak dituzten bezeroek (adibidez bizkarreko arazoak dituzten bezeroak) haientzat komenigarriak diren modeloak izango dituzte salgai web orrian. Gainera, kontsumitzaileek web orrian erosten badute, deskontuak, bonoak eta bestelakoak emango ditugu.

Kontsumitzaileak ez diren bezeroak deien eta emailen bitartez erantzungo ditugu erosotasuna eta gertutasuna eskaintzeko. Krisialdien kasuan bezeroekin kontaktuan jarri ondoren bidaliko ditugu produktuak. Egoera hobetzean erosleekin harremanetan jarriko gara produktuen bilketa egiteko, modu honetan hondakinak murriztuko ditugu.